# UNECA-ren Kalitate-plana



UNECA, Arabako Eraikuntzako Enpresarioen Batasuna, 1977an eratu zen irabazi-asmorik gabeko enpresa-elkarte lokabe bezala, gizartean eraikintzako enpresarioen baloreen alde egin eta haiek ordezkatzeko xedez, enpresa-etikako abiaburuekin eta helburu batzuekin bat etorririk. Helburu horiek honakook dira:

- Beraren elkartuek beraien arazoak konpontzeko egiten dien zerbitzu-eskaria asetzea.
- Enpresen lehiakortasuna hobetzea eta Arabako ekonomia eta gizartea garatzen laguntzea.
- Eta, azken batean, gure elkartuek UNECA beren enpresaren zatitzat hartzea.

## Proiektuaren beharra

Duela bost urte UNECA elkarteak eraikintzako enpresei lehiakortasunaren erronkari aurre egiten laguntzeko kalitatearen eremuan jardun beharra antzeman zuen. Horrela, lehenengo fasean motibazioa ekarri zuen eta ISO-9000 ARAUAK zabaldu zituen eta arlora egokitu zituen, kalitatearen kultura sustatzeko helburuz.

Ekintza horiek erantzun zabala izan zuten. Alde batetik, UNECA elkartearekin elkartutako enpresa askok kalitatea kudeatzeko sistema ezartzeko lanari inor gabe ekin ziezaioten balio izan zuten haiek; eta, beste alde batetik, neurri txikiagoko enpresa elkartuei erantzuna emateko, UNECA elkartearen Trakzio Planaren abiarazpena bultzatu zuten.

Plan hori, funtsean, enpresa elkartuekiko Kalitate-gaiko zuzeneko konpromisoa hartzean eta bezeroek adierazitako espezifikazioak betetzen dituzten zerbitzuak eskaini beharra enpresa-munduan hedatzean zetzan.

## Proiektuaren helburuak

1. UNECA elkarteko enpresak Kalitaterantz mobilizatzea.
2. Enpresei beren Kalitate-sistema ezartzen laguntzeko Kalitate-unitate bat izatea, LEIAko teknikariek osatutako kalitate-unitatea alegia.
3. Kalitate-sistemaren dokumentazioa ahalik eta gehien txikitzea eta Planari atxikitzen zaizkion enpresei hari eusteko tresna informatikoa ematea.
4. Plana Kudeatzen duen Organo bat sortzea, UNECA elkartearen Kalitate-planean sartuta dauden enpresen kalitate-planen ibilera kontrolatzen duena.
5. Ziurtapen-mailan dauden enpresak beren Kalitate-sistemak Ziurtatzera bultzatzea, erakunde Ziurtatzaileekikoak eta ziurtapenaren kostuak txikitzekoak diren akordioen bitartez.
6. Enpresa Ziurtatuak Kalitate osoari begira orientatzea.

## Emaitzak

- Enpresa Ziurtatuak: 30
- UNECA elkartearen Kalitate-planean sartuta dauden enpresen kopurua: 26.
- AENOR-ekin lankidetza-hitzarmen bat ezartzea.
- Taldean jarduteko eskalako ekonomien zioz kalitate-sistema ezartzeko aholkularitzako kostuak nabarmen merkatzea.
- Kalitate-sistemari eustekoa den eta Kalitate-sistemaren dokumentazio maila oso urritzen duen tresna informatiko baten zuzkidura.

Pasaje de Postas, 32-7º
01001 VITORIA-GASTEIZ
Teléfono/a: 945 14 39 01
Fax/a: 945 13 21 85
Web/a: http://www.sea.es

# Plan de Calidad de UNECA

UNECA, Unión de Empresarios de la Construcción de Alava, se constituye en 1977 como asociación empresarial independiente y sin ánimo de lucro, con la finalidad de representar y defender los valores de los empresarios de la construcción ante la sociedad, de acuerdo a los principios de ética empresarial y con los siguientes objetivos:

- Satisfacer la demanda de servicios de sus asociados para la resolución de sus problemas.
- Mejorar la competitividad de las empresas y contribuir al desarrollo económico y social de Alava.
- Y, que en definitiva, nuestros asociados consideren a UNECA como parte de su empresa.

## Necesidad del proyecto

Hace ya cinco años que UNECA detectó la necesidad de actuar en el campo de la calidad para ayudar a las empresas de la construcción a afrontar el reto de la competitividad. Comenzando así, por una primera fase de motivación y divulgación de las NORMAS ISO-9000 y su adecuación al sector, con la finalidad de fomentar la cultura de la calidad.

Estas acciones tuvieron amplia respuesta. Por un lado sirvieron para que un número importante de empresas asociadas a UNECA acometiera en solitario la labor de implantar un sistema de gestión de la calidad, y por otro, para dar respuesta a las empresas asociadas de menor dimensión, impulsaron la puesta en marcha del Plan Tracción de UNECA.

Dicho Plan consistía, en esencia, en asumir un compromiso directo con las empresas asociadas en materia de Calidad y divulgar en el mundo empresarial la necesidad de ofrecer servicios que cumplan con las especificaciones expresadas por sus clientes.

## Objetivos del proyecto

1. Movilizar a las empresas de UNECA hacia la Calidad
2. Disponer una Unidad de Calidad, compuesta por técnicos de LEIA-CDT, para ayudar a las empresas a implantar su sistema de Calidad.
3. Disminuir en lo posible la documentación del Sistema de calidad y facilitar a las empresas que se adhieren al Plan una herramienta informática como soporte de la misma.



4. Crear un Organo Gestor del Plan que controle la marcha de los planes de calidad de cada una de las empresas incluidas en el Plan de Calidad de UNECA.
5. Estimular a las empresas que se encuentren a nivel de aseguramiento a Certificar sus sistemas de Calidad, mediante acuerdos con las entidades Certificadoras que minimicen los costes de la certificación.
6. Orientar a las empresas Certificadas hacía la Calidad Total.

## Resultados

- Empresas Certificadas: 30
- Número de empresas incluidas en los Planes de Calidad de UNECA: 26.
- Establecimiento de un convenio de colaboración con AENOR.
- Abaratamiento considerable de los costes de asesoramiento en la implantación del sistema de calidad por las economías de escala de la actuación en grupo.
- Dotación de una herramienta informática soporte del sistema de Calidad que disminuye de forma muy importante el nivel de documentación del Sistema de Calidad.